



Europar, adin txikiko hiru pertsonatik bat hiltzen da ingurumen-arrazoiengatik. Osasunaren Mundu Erakundeak prestatutako eta The Lancet medikuntza-aldizkari britainiarrak argitaratutako txosten baten arabera, heriotza horietatik gehienak barruko eta kanpoko airearen kutsadurak, kutsaturiko uren kontsumoak, berunak eragindako toxikazioek eta istripuen ondoriozko lesioek eragiten dituzte.

XXI. menderako osasun-estrategia

“Osasuna, gaixotasunik edo ondoezik eza ez ezik, erabateko gorputz-, buru- eta gizarte-ongizateko egoera da”

(OMEk 1947an Osasunari buruz emandako definizioa).

HELBURUAK

- Osasunaren eta ingurumenaren arteko loturari buruz hausnartzea.
- Osasuna eta ingurumena babesteko eta hobetzeko jarduerak diseinatzea.

1998ko MAIATZEAN, OMEren 51. batzarrak XXI. mendeko Guztiontzako Osasun Estrategia berresteko Deklarazioa onetsi zuen. Bertan, mundu osoko jendeak osasun-maila hobezina izateko baldintzak islatzen dituzten hamar helburuak zehaztu zituen. Geroago, Europar

Eremuan osasun-politiken funtsa itxuratzeko beste 21 helburu formulatu zituzten. Herrialde, erkidego eta lurralde bakoitzak bere behar eta gaitasunetara egokitu behar ditu helburuok. Aipatutako 21 helburu horietatik 4 ingurumenarekin loturiko alderdien gainekoak dira:

- 9. helburua** 2020rako, nabarmenki murriztu beharko lirateke istripuek eta indarkeriak eragindako oinazea, minusbaliotasuna eta heriotza.
- 10. helburua** 2015erako, jendeak inguru fisiko seguruagoan bizi beharko luke, kutsatzaile arriskutsuen eragina nazioartean erabakitako eredu azpitik mantenduz.
- 11. helburua** 2015erako, gizarteko maila guztietako jendeak bizimodu osasungarriagoak izan beharko lituzke.
- 13. helburua** 2015erako, etxean, eskolan, lantokian eta dagokion komunitatean, giro fisiko eta sozial osasungarriagoan bizitzeko aukera gehiago izan beharko lituzke jendeak.



Aurreko testua aintzat hartuta, proposatu zeuen inguruan osasun ona lortzen lagun dezaketen neurriak.

- Nola murriztu daitezke istripuen ondoriozko minusbaliotasunak eta heriotzak?
- Nola gaude EAEn, osasunarentzat arriskutsuak diren kutsatzaileen eraginari dagokionez?
- Giro osasungarria dago zuen etxean edo ikastetxean?

Galdera horiei erantzuten lagundu ahal dizueten helbideak:

Ingurumen osasuna eta arriskuak Gasteizen

- ◆ <http://www.ingurumena.net/Euskara/Datos/Indicadores/index.htm>
- ◆ <http://www.vitoria-gasteiz.org/ceae/agenda21/default.htm>

Osasuna eta ingurumena

- ◆ http://www.euskadi.net/indicadores_ambientales/salud_e.htm